Hernaniko Udala

HERNANIKO BITERI KULTUR ETXEAN ERA ASKOTAKO IKASTAROAK ANTOLATU ETA EMATEKO NAHIZ AUZOETAN HAURRENTZAKO TAILERRAK ANTOLATZEKO ZERBITZUA PROZEDURA IREKIZ ADJUDIKATZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA

Pliego de prescripciones técnicas para la adjudicación por procedimiento abierto del servicio de organización e impartición de cursos de diversas especialidades artísticas en Biteri kultur etxea y talleres infantiles en los barrios.

1. XEDEA

Baldintza orri hauetan oinarrituta egingo den kontratuaren helburua izango da Biteri kultur etxerako hainbat arte diziplinatako kultur-ikastaroak eta tailerrak diseinatu, antolatu eta eskaintzea. Era berean, Hernaniko auzoetan haurrentzako tailerrak antolatzea eta eskaintzea. Hori guztia espedientean ageri den dokumentazio teknikoaren arabera egingo da.

2. ZERBITZUAREN EZAUGARRIAK

Zerbitzu honek ikasturte zehatz batean eman beharreko ikastaroen eta egutegiaren diseinu orokorra eta ikastaroak ematea hartzen ditu bere baitan. Plegu tekniko hauetan Biteri kultur etxean eskaini nahi diren ikastaroak jasotzen dira (ikus 3. puntua). Horiek izango dira ikastaro eskaintzaren oinarri, baina ikasturte batetik bestera gerta liteke ikastaroak eranstea edo bertan behera uztea.

Beraz, ikastaro eskaintza ikasturtero aztertu eta baloratuko da Kultura Sailarekin batera. Balorazio horren ondorioz, gerta liteke ikastaro batzuetan aldaketak egitea (ordutegia, irakaslea, edukia...), ikastaroak bertan behera geratzea edo ikastaro berriak sortzea.

2.1 Ikastaroak bertan behera

Ikastaro batek aurrera egin dezan, gutxienez 8 laguneko taldea osatu beharko da, salbuespenak salbuespen. Kopuru hori lortzen ez bada, ikastaroa bertan behera geratuko da eta hurrengo ikasturtean

1. OBJETO

El objeto del contrato que se realizará en base a estas condiciones será el diseño, organización e impartición de cursos y talleres culturales de diversas disciplinas artísticas para Biteri kultur etxea. Asimismo, comprende la organización e impartición de talleres infantiles en los barrios de Hernani. Todo ello se realizará de acuerdo con la documentación técnica que figura en el expediente.

2. CARACTERÍSTICAS DEL SERVICIO

Este servicio comprende el diseño general de los cursos y el calendario a impartir en un curso escolar concreto, así como la impartición de los cursos. En el presente pliego técnico se recogen los cursos que se desean ofrecer en Biteri (véase el punto 3). Estos constituirán la base de la oferta de cursos, si bien de un año a otro podrían añadirse o cancelarse cursos.

Por tanto, la oferta de cursos se analizará y valorará cada año escolar junto con el Departamento de Cultura. Como resultado de dicha valoración, podrían producirse cambios en algunos cursos (horario, docente, contenido...), la cancelación de cursos o la creación de nuevos cursos.

2.1 Cancelación de cursos

Para que un curso salga adelante deberá formarse un grupo mínimo de 8 personas, salvo excepciones. Si no se alcanza ese número, el curso quedará cancelado y se valorará si incluirlo o no en la oferta del siguiente año escolar.

berriz ere eskaintzaren barruan sartu ala ez baloratuko da.

Horretarako, ikastaroaren balorazioa egingo da irakaslearekin, eta egoki iritziz gero, moldaketak egingo dira hurrengo ikasturteari begira (ordutegi aldaketa, irakasle aldaketa, edukia egokitzea...). Interesik sortzen ez duela baloratuz gero, bertan behera geratuko da.

2.2 Ikastaro berriak

Ikastaro berriak enpresa esleipendunak zein Kultura Sailak proposatu ditzake, betiere eskaintza prestatzeko garaian eta argitaratu aurretik.

Kasu horretan, ikastaroa eskaintzeko espazio eta ordutegi egokiak bilatuko dira, bai eta ikastaroa emango duen irakaslea ere. Enpresari dagokio irakasleak hautatzea eta irakasle horrek eskaini beharreko alorrean esperientzia duela eta plegu administratiboetan eskatutako hizkuntza irizpideak betetzen dituela frogatu beharko du ziurtagirien bidez.

Ikastaro berriak eskaintzearen azken erabakia Kultura Sailak izango du, egokitasuna, eskaria eta egoera finantziarioa aztertu ondoren.

Udalak eskubidea gordetzen du kontratu honetatik kanpo ikastaroak antolatzeko, ikastaro horiek lizitazio honen barruan ez sartzeko arrazoiak bi izan litezke: egile-ikastaroak izatea, arloko espezialista jakin batekin eman nahi izatea, edo, ikastaro espezializatuak izatea eta ez oinarrizkoak.

2.3 Enpresarekiko harremanak

Enpresak ordezkari bat edo gehienez bi, izendatuko ditu Kultura Sailarekin bitartekari lanak egiteko. Ordezkari horrek zerbitzuan sor daitezkeen arazo, gertaera edo eskaerak bideratu eta jakinaraziko dizkio teknikariari, eta beharrezkotzat joz gero, Kultura Sailak esku hartuko du.

Ordezkari horrek, halaber, hilero eskainitako zerbitzuaren fakturak helaraziko dizkio kultura teknikariari azter ditzan eta oniritzia eman diezaien, faktura elektronikoa erregistratu aurretik.

Printzipioz, bilera eta hartueman horiek ordezkariaren eta teknikariaren artekoak izango dira, baina beharrezkotzat joz gero, irakasle guztiekin bilera bat eska dezake Kultura Sailak. Kasu horretan, irakasleek bileran parte hartu beharko dute.

Euskara Sailak ikastaroetako hizkuntza erabilerari jarraipena egingo dio eta irakasleekin harremanetan jarriko da gerta litezkeen arazoetan laguntzeko edo

Para ello, se realizará una valoración del curso junto con el/la docente y, si se considera oportuno, se realizarán ajustes de cara al siguiente año escolar (cambio de horario, cambio de docente, adaptación de contenidos...). Si se valora que no genera interés, quedará cancelado definitivamente.

2.2 Nuevos cursos

Los nuevos cursos podrán ser propuestos tanto por la empresa adjudicataria como por el Departamento de Cultura, siempre en el momento de preparar la oferta y antes de su publicación.

En ese caso, se buscarán el espacio y el horario adecuados para ofrecer el curso, así como el/la docente que lo impartirá. Corresponde a la empresa la selección de los/las docentes, debiendo acreditar mediante certificados que dicho/a docente tiene experiencia en el área a impartir y que cumple los criterios lingüísticos exigidos en los pliegos administrativos.

La decisión final sobre la oferta de nuevos cursos corresponderá al Departamento de Cultura, tras analizar la idoneidad, la demanda y la situación financiera.

El Ayuntamiento se reserva el derecho a organizar cursos al margen de este contrato, sin incluirlos en esta licitación, por dos posibles razones: que se trate de cursos de autor —impartidos por un especialista concreto del ámbito— o que sean cursos especializados y no de nivel básico.

2.3 Relaciones con la empresa

La empresa designará uno o como máximo dos representantes para ejercer de interlocutores con el Departamento de Cultura. Dicho/a representante canalizará y comunicará al/a la técnico/a los problemas, incidencias o solicitudes que puedan surgir en el servicio y, si se considera necesario, el Departamento de Cultura intervendrá.

Dicho/a representante también remitirá mensualmente a la técnico de cultura las facturas del servicio prestado para su revisión y conformidad, antes de registrar la factura electrónica.

En principio, las reuniones y contactos se producirán entre el/la representante y la técnico de cultura, pero si se considera necesario, el Departamento de Cultura podrá solicitar una reunión con todos los/las docentes. En ese caso, los/las docentes deberán participar en la reunión.

El Departamento de Euskera realizará el seguimiento del uso del idioma en los cursos y se pondrá en contacto con los/las docentes para ayudar en los

gomendioak emateko.

2.4 Enpresaren betebeharrak

Hernaniko hezkuntza ez-formalaren esparruan haur, nerabe eta gazteei zuzendutako zerbitzuak eskaintzen dituzten eragileek osatzen duten koordinazio-gunean parte hartuko du hilabetean behin enpresak izendatzen duen arduradunak , bertako lan dinamikak modu aktiboan aberasten. Elkarlan horrek ekimenen arteko koordinazioa hobetzen du, baliabideen erabilera eraginkorragoa sustatzeko eta haur, nerabe eta gazteen beharrei erantzun integralagoa emateko.

Gainera, Hernaniko Udalak Zaintzen Eraldaketarako II.Ekintza planaren barruan, zaintzaren inguruko eraldaketa sozial eta komunitario bultzatzeko hainbat helburu estrategiko ezartzen ditu. Enpresa esleipendunak belaunaldi desberdinen arteko harremanak, elkarren aitortza eta ezagutza-trukea sustatuko dituzten proiektu intergenerazionalak bultzatu eta garatzeko konpromisoa izango du.

2.5 Irakasleen betebeharrak

Irakasleei dagokie ikastaroaren plangintza eta edukiak lantzea eta enpresa esleipendunaren bidez Kultura Sailari helaraztea. Horretaz gain, irakaslearen ardura izango da plangintza hori garatzea ikasturtean zehar. Ikasle taldearen arabera edo bestelako arrazoiengatik, edukia egokitu ahal izango dute, betiere hasierako helburuetatik aldentzen ez bada.

Klaseetan gerta daitezkeen ezbehar, arazo edo kexen berri emango diote enpresako arduradunari, eta honek kultura teknikariari.

Klaseak puntualtasunez hasi eta amaitu beharko dituzte, eta hori betetzerik ez badute, enpresako ordezkariari zein kultur etxeko langileei jakinarazi beharko diete, ikasleei abisua emateko. Ez da onartuko puntualtasuna behin eta berriz urratzea.

Irakasleek Kultura zein Euskara Sailetik egiten zaizkien eskaerak bete beharko dituzte. Hala nola, Kultura Sailak prestatutako inkestak banatuko dizkiete ikasleei urte amaieran, iritziak jaso asmoz, eta ikastaroaren urteko memoria idatzi eta aurkeztu beharko dute. Memoria horretan, ikasturtearen balantzea egitearekin batera, hobetu beharreko gauzak edo hurrengo urterako ekarpenak egingo dituzte.

Bestalde, Euskara Sailak hizkuntzaren inguruan egiten dituen eskaerei ere garaiz erantzun beharko diete.

2.6 Bajak, klaseen errekuperazioak...

posibles problemas que puedan surgir o para hacer recomendaciones.

2.4 Obligaciones de la enpresa

La persona responsable que designe la empresa, participará una vez al mes en un espacio de coordinación formado por agentes que ofrecen servicios dirigidos a la infancia, adolescencia y juventud en el ámbito de la educación no formal de Hernani, con el objetivo de enriquecer activamente las dinámicas de trabajo del mismo. Esta colaboración mejora la coordinación entre iniciativas para promover un uso más eficiente de los recursos y dar una respuesta integral a las necesidades de niños, adolescentes y jóvenes.

Además, el Ayuntamiento de Hernani dentro del II Plan de Acción para la Transformación de los Cuidados establece una serie de objetivos estrátegicos para impulsar la transformación social y comunitaria en torno al cuidado. La empresa adjudicataria se compromete a impulsar y desarrollar proyectos intergeneracionales que fomenten las relaciones intergeneracionales, el reconocimiento mutuo y el intercambio de conocimiento.

2.5 Obligaciones de los/las docentes

Corresponde a los/las docentes elaborar la planificación y los contenidos del curso y remitirlos al Departamento de Cultura a través de la empresa adjudicataria. Además, será responsabilidad del/de la docente desarrollar dicha planificación a lo largo del curso escolar. En función del grupo de alumnos/as u otras razones, podrán adaptar los contenidos, siempre que no se aparte de los objetivos iniciales.

Comunicarán al/a la responsable de la empresa las incidencias, problemas o quejas que puedan producirse en las clases, y este/a a su vez a la técnico de cultura.

Las clases deberán comenzar y finalizar con puntualidad y, si no pudiera cumplirse, deberán comunicarlo al/a la representante de la empresa y al personal de la casa de cultura para avisar a los/las alumnos/as. No se tolerará el incumplimiento reiterado de la puntualidad.

Los/las docentes deberán atender las solicitudes que se les hagan desde los departamentos de Cultura y Euskera. Por ejemplo, distribuirán a los/las alumnos/as las encuestas elaboradas por el Departamento de Cultura al final del año para recoger sus opiniones, y deberán redactar y presentar la memoria anual del curso. En dicha memoria, además de hacer un balance del curso escolar, incluirán aspectos a mejorar o aportaciones para el siguiente año.

Asimismo, deberán responder en tiempo y forma a las solicitudes que el Departamento de Euskera realice en

Irakasleek gaixotasunagatik edo bestelako ezbeharrengatik klasea ematerik ez badute, enpresako ordezkariari edo kultur etxeko langileei abisatu beharko diete, ikasleei jakinarazteko ahal bezain azkar. Klase horiek hurrengo egunetan errekuperatu beharko dira.

Gaixotasun edo bestelako egoera batengatik irakaslea bajan egonez gero, hiru egunetik aurrera, enpresa esleipendunari dagokio beste irakasle bat topatzea ordezkapena egin ahal izateko. Ordezkapena egiten duen irakasleak klaseak emateko baldintzak bete beharko ditu, hala nola, gaian esperientzia izatea eta hizkuntza irizpideak betetzea.

Enpresa esleipenduna bajaren eta horren dakartzan gastuen kargu egingo da.

2.7 Ikastaroetako materiala

Ikastaroetan erabiltzen den materiala Kultura Sailak hornituko du, salbuespenak salbuespen. Enpresa esleipendunak material gastuen proposamena egingo du eta Kultura Sailak bere oniritzia emango du. Zenbait ikastarotan, ikasleek beraiek ekarritako materiala erabiliko dute.

3. BITERI KULTUR ETXEAN ESKAINI NAHI DIREN IKASTAROEN ZERRENDA (ikusi I. Eranskina)

4.-AUZOETAN HAURRENTZAT TAILERRAK

Helburua: haurren aisialdirako kultur eskaintza erakargarria ematea da. Eskulan eta arte-plastikoekin lotutako jarduerak egingo dira, horretaz gain, kanpo-jolasekin konbinatuko da ingurunea eta auzoa ezagutuz.
Adina: 5-11 urte bitarteko haurrei zuzendua
Honako auzo hauetan eskainiko da: Elizatxo, Lizeaga, Antziola, Latsunbe, Zikuñaga, Portu, Sorgintxulo, Karabel, Etxeberri, Martindegi, Txantxilla eta Ereñozu. Auzo bakoitzari astean saio bat bermatuko zaio. Talde bat baino gehiago sortzen badira auzoetan saio laburragoa planteatu litezke.

5.- EGUTEGIA

Biteri kultur etxeko ikastaroak
Kurtso hasiera: urriak 1
Eguberritako oporrak: abenduak 23-urtarrilak 6
Inauterietako oporrak haurrentzat: otsailak 6,8 eta 9
Aste Santuko oporrak: martxoak 22tik apirilak4ra
Kurtso bukaera haurrentzat azken eguna: maiatzak 31
Kurtso bukaera helduentzat azken eguna: ekainak

materia lingüística.

2.6 Bajas, recuperación de clases...

Si los/las docentes no pudieran impartir clase por enfermedad u otras circunstancias, deberán avisar al/a la representante de la empresa o al personal de la casa de cultura lo antes posible para comunicárselo a los/las alumnos/as. Dichas clases deberán recuperarse en los días siguientes.

Si el/la docente estuviera de baja por enfermedad u otra situación a partir del tercer día, corresponde a la empresa adjudicataria encontrar otro/a docente que pueda realizar la sustitución. El/la docente sustituto/a deberá cumplir las condiciones para impartir las clases, tales como tener experiencia en la materia y cumplir los criterios lingüísticos.

La empresa adjudicataria se hará cargo de la baja y de los gastos que esta conlleve.

2.7 Material de los cursos

El material utilizado en los cursos será suministrado por el Departamento de Cultura, salvo excepciones. La empresa adjudicataria realizará una propuesta de gastos de material y el Departamento de Cultura dará su conformidad. En algunos cursos, los/las alumnos/as utilizarán el material que traigan ellos/as mismos/as.

3. RELACIÓN DE CURSOS QUE SE DESEAN OFRECER EN LA CASA DE CULTURA BITERI (Ver anexo I)

4. TALLERES INFANTILES EN LOS BARRIOS

Objetivo: ofrecer una oferta cultural atractiva para el ocio infantil. Se realizarán actividades relacionadas con las manualidades y las artes plásticas, combinadas con juegos al aire libre conociendo el entorno y el barrio.

Edad: dirigido a niños y niñas de entre 5 y 11 años.
Barrios en los que se ofrecerá: Elizatxo, Lizeaga, Antziola, Latsunbe, Zikuñaga, Portu, Sorgintxulo, Karabel, Etxeberri, Martindegi , Txantxilla y Ereñozu. A cada barrio se le garantizará una sesión por semana. Si se forman más de un grupo en los barrios, podrían plantearse sesiones más cortas.

5. CALENDARIO

Cursos de la Casa de Cultura Biteri
Inicio del curso: 1 de octubre
Vacaciones de Navidad: 23 de diciembre – 6 de enero
Vacaciones de Carnaval (niños/as): 6, 8 y 9 de febrero
Vacaciones de Semana Santa: 22 de marzo – 4 de abril
Fin de curso niños/as (último día): 31 de mayo
Fin de curso adultos/as (último día): 17 de junio

Talleres infantiles en los barrios

17

Auzoetako haurrentzat tailerrak
Kurtso hasiera: urriak 1
Eguberritako oporrak: abenduak 23 – urtarrilak 6 (biak barne)
Aste santuko oporrak: martxoak 22 – apirilak 4ra(biak barne)
Kurtso bukaera/azken eguna: ekainak 17lagunduz.

Inicio del curso: 1 de octubre
Vacaciones de Navidad: 23 de diciembre – 6 de enero (ambos inclusive)
Vacaciones de Semana Santa: 22 de marzo – 4 de abril (ambos inclusive)
Fin de curso / último día: 17 de junio

Hernanin, 2026ko uztailaren 29an

I. Eranskina / Anexo I

Ikastaroa	Hasiera	Bukaera	Eguna(k)	Ordutegia
HAURRAK				
Antzerkia. 9 - 12 urte	Urriak 2	Maiatzak 28	Ostirala	17:00-18:30
Pintura-marrazketa. 6 - 9 urte **EUSKARAZ**	Urriak 5	Maiatzak 26	Astelehena eta asteazkena	17:00 18:30
Pintura- marrazketa. 9-12 urte	Urriak 6	Maiatzak 27	Astearte eta osteguna	17:00 18:30
Sormenarekin jolasean LABURRA **EUSKARAZ**	Urriak 5	abenduak 21	Astelehena	17:00 18:00
Sormena, emozioak eta giza trebetasunak lantzeko tailerrak. 4-5 urte **EUSKARAZ**	Urriak 3	Maiatzak 29	Astelehena	18:15 19:15
Naturako elementuekin jolasean **EUSKARAZ**	Urriak 5	Abenduak 23	Asteazkena	17:30 18:30
GAZTETXOENTZAT (13-17 urte)				
Marrazketa 13-17 **EUSKARAZ**	Urriak 7	Maiatzak 26	asteazkena	18:30 20:00
HELDUENTZAT				
ARTE PLASTIKOAK				
Egur taila *Talla en madera*	Urriak 5 *Octubre*	Ekainak 14 *Junio*	Astelehena *Lunes*	09:30 12:00
Egur taila **EUSKARAZ**	Urriak 6	Ekainak 15	Asteartea	18:00 20:30

Pintura (sakontzea-*avanzado*)	Urriak 5 *Octubre*	Ekainak 16 *Junio*	Astelehena eta asteazkena *Lunes y miércoles*	19:00 20:30
Pintura (hastapena) **EUSKARAZ**	Urriak 6	Ekainak 17	Asteartea eta osteguna	19:00 20:30
Pintura	Urriak 4 *Octubre*	Ekainak 15 *Junio*	Asteartea eta osteguna *Martes y jueves*	10:00 11:30
Zeramika **EUSKARAZ**	Urriak 3	Ekainak 14	Astelehena eta asteazkena	19:00 21:00
ESKULANAK				
Eskulanak *Manualidades*	Urriak 4 *Octubre*	Ekainak 15 *Junio*	Asteartea eta osteguna *Martes y jueves*	10:00 11:30
Patchwork **EUSKARAZ**	Urriak 6	Ekainak 15	Osteguna	17:00 19:00
Arropa konponketa eskuz. Joskintza eta patroigintza *Costura y patrones*	Urriak 4 *Octubre*	Ekainak 13 *Junio*	Asteartea	17:00 19:00
Arropa konponketa eskuz. Joskintza eta patroigintza **EUSKARAZ**	Urriak 4	Ekainak 13	Asteartea	19:00 21:00
Arropa konponketa eskuz. Joskintza eta patroigintza **EUSKARAZ**	Urriak 5	Ekainak 14	Asteazkena	09:30 11:30
Altzarien itxura berritzea eta aldatzea	Urriak 4	Ekainak 13	Asteartea	19:00 21:00
ARTE ESZENIKOAK				
Dantza garaikidea **EUSKARAZ**	Urriak 4	Ekainak 15	Asteartea eta osteguna	09:30 11:00

Dantza garaikidea (hastapena) *Danza contemporánea (iniciación)*	Urriak 3 *Octubre*	Ekainak 14 *Junio*	Astelehena eta asteazkena *Lunes y miércoles*	18:00 19:30
Dantza garaikidea (sakontzea) **EUSKARAZ**	Urriak 3	Ekainak 14	Astelehena eta asteazkena	19:30 21:00
Dantza latinoak *Bailes latinos*	Urriak 4 *Octubre*	Ekainak 15 *Junio*	Asteartea Martes	19:00 21:00
Dantza latinoak	Urriak 6	Ekainak 15	Osteguna	19:00 21:00
Antzerkia **EUSKARAZ**	Urriak 4	Ekainak 13	Asteartea	19:00 20:30
AUTOEZAGUTZA ETA OSASUNA				
Tai-Chi Kung **EUSKARAZ**	Urriak 4	Ekainak 15	Asteartea eta osteguna	17:30 19:00
Yoga **EUSKARAZ**	Urriak 3	Ekainak 14	Astelehena eta asteazkena	09:30 11:00
Yoga	Urriak 3 *Octubre*	Ekainak 14 *Junio*	Astelehena eta asteazkena *Lunes y miércoles*	10:00 12:30
Yoga **EUSKARAZ**	Urriak 4	Ekainak 15	Asteartea eta osteguna	19:00 20:30
Yoga (hastapena) **EUSKARAZ**	Urriak 3	Ekainak 14	Astelehena eta asteazkena	19:30 21:00
Yoga	Urriak 4 *Octubre*	Ekainak 15 *Junio*	Asteartea eta osteguna *Martes y jueves*	15:00 16:30
IKASTARO LABURRAK				
Argazkigintza digitala: zure kamera	Urriak 3	Abenduak 19	Astelehena	19:00

ezagutua eta argazkiak landu (hastapena) **EUSKARAZ**			* 3 saio praktiko izango dira klase orduetatik kanpo	21:00
Argazkigintza digitala: erretratua, paisaia, gaueko eta kaleko argazkilaritza (aurreratua) **EUSKARAZ**	Urtarrilak 9	Apirilak 3	Astelehena * 3 saio praktiko izango dira klase orduetatik kanpo	19:00 21:00
Sukaldaritza **EUSKARAZ**	Urriak 3	Abenduak 5	Astelehena	19:00 21:00
Sukaldaritza **EUSKARAZ**	Urtarrilak 9	Martxoak 13	Astelehena	19:00 21:00

Euskarazko eta espainierazko testuen artean kontraesanik edo inkoherentziarik antzemanez gero, euskarazko testuak izango du balio.

Si existe alguna contradicción o inconsistencia entre los textos en euskera y español, prevalecerá el texto en euskera.